

## ELKARTEAK

Elkarte ezberdinen artean aliantzak egongo dira bi hauen helburua bien etekina lortzea izango da. Kasu honetan, enpresa hau eta beste enpresaren artean ez da egongo inolako lehiarik. Ahalegindu beharra dago, lehiakide ez diren horiekin aliatzen, eta horretarako aproposak diren hainbat enpresa topa daitezke inguruan, esaterako, zubikoa kiroldegia. Oñatin oso indar handia duen elkarte da eta herritar ugari erabiltzen du, beraz, oso aliantza aproposa da.



ZUBIKOA KIROLDEGIKO BAZKIDE



ZINTZILBUTIL

Asmoa kiroldegian bazkide egiten den jendeari, produktua oparitzea da. Horrela produktua ezagutzera eramango da, eta etorkizuneko bezero posibleak produktua erabiltzera ohituko dira, salmenta posibleak handitzen hasiera batean. Produktuak arrakasta handia duen momentuan kiroldegia produktuaren sortzaileei ordaintzen hasiko da, azken finean, horrek ere motiba dezakeelako Oñatiko edozein herritar bazkide egitera.



Estrategia honekin gehigarri bat ematen dio zubikoa kiroldegian bazkide egiteari eta gainera produktua ezagutarazten dute, onura nabaria da. Zintzilbutil kirolarekin dago lotuta, batez ere, kirola praktikatzeko denentzako erabiliko delako gehien, eta kirola

kiroldegian egiten da. Gimnasioan azkenaldian geroz eta jende gehiago egoten da eta askotan ez da leku asko egoten norberaren botila lurrian uzteko, zoru guztia beteta egoten delako, eta ondorioz, jendea botilak botatzeko beldurrekin ibiltzen da, lurrian dauden botila guztiak sahiestuz. Horregatik Zintzil butil beharrezkoa da horrelakoetan. Gainera, produktua edozein lekutan zintzil daiteke, bai barra bertikaletan zein horizontaletan.



Honetaz aparte, kiroldegitik kanpoko ekintzetan ere posible da erabiltzea, adibidez, futboleant. Kasu honetan ez litzateke leku faltaren arazoagatik izango, higieagatik baizik. Askotan kautxoa sartzen baita botiletara, baina botila airean bada lurrarekin inolako kontakturik gabe, ez da horrelako arazorik egongo.